

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 100 R. P. 1986/100 1. Aste 27. 1986

21. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

50 pta.

1988 Maiatza



MARIA AUXILIADORA ARRANBIDE, Maritxu begi Zuri, urteek ematen duten jakinduria eta umoreaz hornituta dagoen andre sinpatikoa bisitatzeri joan gara. Berekin batean, Julian Altuna, senarra, makina bat kontu eta mundu ezagutu tuen gizon goxoa.

Bizimodutik hasita arrantza ta bestelako kontuak gain blagan aritu gera, aski gustora gainera!

- Inaxi Lazkano haurrak euskalduntze-ko eskola ereduez mintzo zaigu.
- Pedro Aginagalde Eskolako haurrek bi lan bidali dizkigute beren bilera eta ordinarraiguluen berri emanez.
- Lurdes Zubeldiak lehengo arraketaren ezarria eta izakera bizia gogoratzen dizkigu.
- Martin Ugaldek Bidasoan gora egin nahi izan zuten kanala aipatzen digu.
- Juan San Martinek oraingo gertakari ilun batzuk ez direla horren berriak erakusten digu.
- San Markosen eguna igaro berria dugularik garai bateko prozesioak eta opilak ditu aipagai Sorkundek...

"BATEGINIK" HONDARRIBIAN ERE

Gure aldizkari hau kalera orduko bete-betean egongo da "Bateginik" kanpaina Hondarrribian eta beste herrietan; kanpaina martxoan hasi bazen ere, azken faseak, herri ekintzarenak, apirilaren 15etik maiatzaren 15era arte iraungo bait du.

Dagonezkoz ez da inor egongo kanpaina honen berri ez dakienik, hala eta guztiz, geure aldetik ere ezin utzi dezakegu zor dugun aipamenik egin gabe.

Kanpainaren helburua euskarekiko ardura berpiztea da, hizkuntz egoeraren kezka eta kontzientzia indarberritzea, hemen-dik hasi eta Estrasburgoraino. Eragin hori, ordea, zerbaitetan munitu behar zenez bi helburu zehatz aukeratu dira oraingotan: batetik 200 milioi pezeta biltzea eta bestetik 600.000 firma jasotzea.

Ekintza biek barruko eta kanpoko mugak gainditu nahi dituzte. Milioi horien erdia iparraldeko Seaskari zorrak ordaintzen laguntzeko izango da, eta beste erdia, Nafarroan, Zangotza eta Tuterako ikastolak egiten laguntzeko. Zailtso bat euskararen aldeko lege zerbitzu bat antolatzeke gordeko da. Dirutza hori 1.000 pezetako bonoen bidez eta udalen laguntzaz jasoko da batez ere. Firmak, berriz, batean eta bestean bildurik, Euskal herriko agintari, Madrilgoei, Pariskoiei, eta Europako Parlamentuko ki-

deei bidaliko zaizkie euskararen eskubideak aitortu eta haintzat har ditzaten eskatuz.

Helburu hauek lortzeko, ordea, adostasun minimo bat behar da denon artean, talde interesak eta epe laburreko estratejiak eta protagonismoak ahaztuz. Hori da desafioa. Funtsean, denok nahi dugu euskara dagokion mailan egotea, denok ere nahi dugu euskal eskola publiko egokia. Saia gaitzean, bada, batzuek eta besteak gauza txikietan amore emanda helburu nagusiak lortzen.

Hondarrribian aski izan dira hiru bilera oinarritzko akordio zabal batera iristeko. Saski Baloi taldea, Esku Baloikoa, Kirol Elkartea, Arraun Elkartea, Txirrindulari Elkartea, Judokoa, Xakejoko, Marilaxka, Txanpa, Eskifaia, Haizehots, Garikoitz, Ama Guadalupeko Ikastetxea, Biteri Eskola, Ikastola, Amute-Kosta Auzo Elkartea, Gazteen Asanblada, Amnistia Batzordea, Euskal Herriaren Euskaraz, AEK, HABE eta Udal Euskara-Kontseilua dira nola edo hala kanpaina honetan parte hartuko dutenak.

Aldizkari honetatik ere dei egiten dugu euskararen alde "bateginik" elkarrekin lan egitera.

Udal Euskara-Kontseilua



Apirilaren 9 eta 10ean "Bateginik" zirkoa etorri zitzaigun Irunera eta bertan lehen aldikoz zirkobata euskaraz ikusteko aukera izan genuen. Dromedarioek eta tximinoek ez zuten gehiegi egin baina pailazoez eta Elena eta Elenek presentadoreek euskara hutsean aritu zitzaizkigun. Horra, bada, eremu berri bat euskaldundurik.

Ondoko egunetan, apirilaren 16an hasita, lehen orrialdean aipaturiko taldeek antolatutik, bi asteburuetan izan ditugu ekintzak eta jolasak Hondarribian "Bateginik" kanpaina dela eta. Futbol lehiaketak, txarangak kalejirak, dantzak, haurren pintaketak, estropadak (8 outriger aulki mugikorrek Euskadiko Selektzioa San Pedrokotik traineruaren aurka), txardinadak, ajedrez simultaneoak Patxi Gallegoren kontra, e.a.

Jarraian, aldizkaria atera ondoren gelditzen diren berri emango dugu, denok

parte har dezazuen.

Apirilak 30, larunbata. San Pedro kalean, herriko jasotzeko emandako plater goxoen subasta A.E.K.-k antolatuta.

Maiatzak 1, igandea. Txikiteo musika-lar, Portuan, eguerdian, ESKIFAIAK antolatuta.

Maiatzak 6, ostirala. PATXI PERURENAREN exhibizioa EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ taldeek antolatuta.

Maiatzak 7, larunbata. Haurren dantzak, plastika adierazpenak, gorputz espresioa, e.a., HAIZEHOTSEN ardurapean.

AMUTE-KOSTA AUZO ELKARTEAK pego-gatnakin jarriko ditu Amuteko bigedurutzean, larunbat eta igandean.

Larunbatetako eta igandeko, mahaik egongo dira 1.000 pezetako bonoak saltzen eta firma bilketa ere egingo da.



Patxi Gallego 16 lagunen kontra aritu zen.

MAIATZA

Uda-berriaren muiña da Maiatza. Lore ilara. Erne-berri diran landare eta mota guztietako loreen ikuskuntzarik ederrena eskeintzen duen ilara. Urteko illetan usai-ondunena. Liliuragarria egiz maiatzeko ilara. Olerkariak amaika aloriz aipatua ta goratua.

Antsiñatik kristau erriak Andre Mariari eskeini oi dioten ilara da maiatzeko ilara. Bera bai da kristau erriaren lorerik ederrena ta bikiñena. Jainko indarrak loratu erazi duen lorerik usaintsuena.

Nork ez ditu gozatu, maiatzeko ilara onan, Andre Mariaren aurrean pasatuko une gozo eta pozgarriak?

Aurten, Andre Mariaren urte santuan gauden ezkerre, berezitasun bat dauka maiatzeko ilara onak, eta orregatik elizkizun bereziak ospatuko dira Guadalupeko santutegian. Hondarribiko kristautzat Andre Mariaren iduri maitagarriena Guadalupeko Andre Mariaren iduria da eta bidezkoa da ilara onak egun batzuetan bere oinetan alartzea. Ara emen, Guadalupeko ospatuko

diran elizkizun bereziak:

- Igandeetan, arratsaldeko 6'tan "Maiatzeko loreak" dertzan elizkizuna.
- Aurten leenengo Jaunartzea egun duten umeena.
- Irugarren adieko gizon - emakumeena.

Baliteke beste talde batzuek ere beren elizkizunak izatea.

Bere garaian aditzaera emango dira ospakizun oien eguna ta ordua.

Aur txikiñen ilusioak eta ametsak, adiekoen kaskak eta arazoak, zaarren bizinaiak eta naigabeak jasoko ditu Guadalupeko amak bere inguruan bilduko diran guztietatik eta bere gozotasuna eta barnuko poza sumatzen dutela itzuliko dira beren etxeetara.

Maiatza... Lore-ilara... Uda-berri... Biziberri... Poz iturri

Juan José Echaide



OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Maiatzak 2 - 8: Erauskin
9 - 15: Maij
16 - 22: Iraola
23 - 29: Erauskin
31 - 5: Maij

Maij, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Maiatzak 1: Martinez
8: Arratibel
15: Garmendia
22: Martinez
29: Arratibel

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN

Goizeko 8,30etan Betherranen
9etan Amuten
9,30etan Guadalupeko
11etan Portuan

HERRI GIROA

• Herriko udaltzainak uniformeak aldatzera doaz. Oraingoan, jai giroa jartzeko edo, kapelu gorria jantziko dietela entzun dugu.

• Kai Berria gora eta Kai berrea behera! Badirudi Eusko Jaurlaritzak CEDEX enpresari eskatu diola bertako obren estudioa. Ea noiz amaitzen duten!

• Kai Berrian Campsak egin duen zuloa gasoil tankeentzat izango da, eta ez, batzuk dioten bezala, antxoan hazkuntzarako biberioentzat.

• Udaletxeak jarri zuen buzoiak arrakasta izugarria izan du. Martxoan eskutitz bat jaso du. Ezer ez gutxiago dela, eta...

• Gaztetxea martxan dago dagoeneko. Entzun dugu bertan badabilzala erreportari berriak. Aldizkari honek gazteen marxak behar du...

Enbidoa hor dago.

• Itsasoko Gurutze Gorriak zabaldu du dagoeneko Arraunlari Elkartearen gainean egindako lokala.

• Errealak poto egin bazuen ere Kopako finalean ez zen jarraitzaileen faltaz. Gure herriatik 500 bat lagun abiatu ziren Madrilerara.

• Dagoenik Aste Santuko VI. Kontzertu Zikloa ospatu da. Aurtengoa ere jendea ugari bildu da kontzertu horien inguruan. Aipatzekoa da lehenengo aldiz Zuloaga kalea kotxeentzat itxia egon dela. Asko lejatu ziren baina bai abeslari eta bai entzuleei mesede izugarria egin die.

• Azkenik, Tessa-ren esku geratu da Zuloaga etxearen konponketa. Honetarako 75.640.000 pezetako presupuestoa dago eta hamar hilabeteko lana izango da. Konponketa honetan zortzi pertsona kontratatuko dira langabezia daudenen artean. Lehen mailako lau igeltsero eta beste lau igeltsero arunt, hain zuzen.

• "Garaiz irakatsi" kanpaina martxan jarria da. Kanpaina hau gaztetxoentzat bereziki zuzendua bada ere, apirilaren 11tik maiatzaren 25era arte gurasoentzat zuzendutako kurtsu batzuei eskainiko dira Klink elkartearen aretoan.

Kanpaina honen barnean lehiaketa fotografiko bat ere antolatutik dago.

• Kanpainak direla eta, "Bateginik" izenekoak ere zenbait ekintza burutu ditu, futbola, arrauna, jakea... eta honen inguruan euskararen aldeko firma biketa bat. Aipagarria da herriko elkarte gehienek eskaini duten laguntza.

• Bi urte beteak ditu gure aldizkari honek baina badirudi ez direla gutxi oraindik hau irakurtzen dutenak. Gure esku dago honen aldaketa, bai irakurle eta laguntzaile!

Euskara ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baiziki!



• Kosta-Amute deritzon bidea konpondute dagoeneko. Eskertzekoa da lan honen bizkortasuna.

Horren bizkor ez dabilzanak Mourlane-Mitxelenakoak dira. Badirudi luzerako doala horko kormeria.

• SIADECOC, Udala eskaturiko ikerketa sozio-linguistikoa egiten ari da. Horretarako 25 lagun kontratatu ditu inkestak eginez hiru astez lan egiteko.

• Lehen kanpokoen erua zen drogaren asuntua. Orain berriz...

• Kulturako Batzordeak lorezaintza kurtsiloa antolatuko du. 60 orduko izango da.

Mikel Mariskal

ARTE ERAKUSKETAK

Zuloaga kaleko MOVELLAN aretoan Euskal herriko zenbait margolarien bilduma dugu ikusgai.

Gai bera ikusteko aukera dugu Arma Plazako TTOPARAN ere.

ARTE-EDER galerian, berriz, B. Cambroneroren oleoak.

San Pedro kaleko arte gelan, bestalde, Xabier Iriarteren lanez osatutako erakusketa.

Arma Plazako OTZAKIN C. Las Heras, Garay eta Salaver margolarien beren azken oleoak zintzilikatu dituzte.

Gipuzkoa Plazan, MEDIEVO erakusgelan, Estela Galanek egindako tapiz bilduma ikusi dezakegu.

HAURRAK EUSKALDUNTZEN

Duela zazpi urte, 1981. urtean hain zuzen, Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak euskararen eta euskarazko irakaskuntza bideratzeko hiru eredu desberdin proposatu zituen Komunitate Autonomoko ikastetxe publikoetan irakasteko. Nafarroa eta Iparraldean kanpoan utzit, noski.

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza mailakatu horren arabera A, B eta D deitu ereduak aurreratu zituen. Eredu horiek non eta nola aplikatu zehazko garaian, euskal hitzunen portzentaiaren arabera egitea pentsatu zuten. Lurralde euskaldunak, elebidunak eta ez euskaldunak definituz, orduko erreallitatearen azterketatik abiatuz.

Plangintza horri esker egun ikastetxe publiko eta pribatu guztietan euskara irakasten da eta ondorioz herri honen hizkuntza euskara dela gehiengoak ohartu egin da. Ofizialki euskara bultzatzeak ere euskararen aldeko zenbait joera bultzatu egin duenlarik.

Halaz ere, aurtengo udaberrian, ikastetxeetako matrikula epea ireki denean eztabaida bizi eta ugari, irrati, prentsa eta herri askotan sortu da. Informazio bilera eta hitzaldiak herri eta hauzo askotan egitea behar izan delarik.

Oztupoak ere ugari dira, noski. Haurrak programazio astunak dituztelako; irakasleak ere lanpeturik ari direlako eta lan berri horretarako gehiegi prestatutik ez daudelako; ikasle kopuru handiko taldeak dituztelako e.a.; euskararen irakaskuntza edota euskarazko irakaskuntza lan astun eta go-gorra bilakatzen da. Guzti horri motibazio falta eta kaleko aurkako giroa erasten bazeaio zailtasunak areagotu egiten dira.

Hondarribiko herria herri euskalduna dela kontutan izanik, hau da lurraldetasunaren arabera, ikastetxe guztietan D eredu irakatsi beharko litzateke. Irakaskuntza euskaraz eman beharko litzateke. Biteri ikastetxeak auzardi haundiz egin zuen salto kualitatibo hori, duela, urte batzu, D ereduaren irakaskuntza osoa egiteari ekin ziolarik.

Beste zenbait ikastetxe, A ereduarekin hasi eta poliki poliki B eredura pasatzen ari dira.

Nolanahi dela ere, A ereduaren emaitzak zailtzen jarri dira aurtengo udaberrian. Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Saileko Kontseilarioordea den Huertas J.K. berak A ereduaren bidez haurrak ezin direla bi hizkuntzen erabilpen egokia egitera irxiti, aitortu du eta nolazpait ere A eredu hori konpondu edo B berregokitzea proposatu du.

Bestalde, B ereduaren aplikatzen den ikastetxeetako emaitzak ez guxti esaten da. Ez da garbi hitzegiten eta gainera egitasmo



zehatzen hutsunea dago. Ondorioz ikastetxe bakoitzak bere baliabideen arabera antolatu eta irakasten du.

Guzti honen inguruan gauza bat dago argi gure herrian: gurasoek ez dakite zihur eredu desberdin hoven zehaztasunaz eta desberdintasunaz, baina beren haurrak euskalduntzea eskatzen dute. Hori behintzat oso nabarmen somatzen den gauza da.

Ereduei buruzko egungo erreallitatea zera da: Hondarribian 300 neska-mutil inguru B ereduaren murgildurik ari direla irakaskuntza egiten. Hau da, erdia euskaraz eta erdia gaztelaz eta 500 baino gehiago kopurua berriz oraindik A ereduaren. Hau da euskara asignatura bezala ikasten dutelarik.

Ikastetxeak ahal dutena egiten ari dira, baina ez dakigu zihur Hondarribiko haurrak zein epetan euskalduntzea proiektatua dagoen. Epeak plangintzaren ezinbesteko atala dira. Eperik gabe helburuak berak kolokan jartzen dira. Epe luzeegiak aspergarri eta zapuztaile bihurtzen dira praktikan. Herriko haur guztiak euskalduntzeko plangintza eraginkor eta zehatzak ahalik eta epe motzenetan euskara ikas dezaten bultzatzea behar-beharrezkoa da. Eta horretan Udaletik bertatik ere ahalegindu beharko litzateke.

Inaxi Lazkano

FAMILIA

EUSKALDUNAK

BEHAR

Igaz bezala, aurtengo ere Eusko Jauriaritzak plangintza bat antolatu du euskaldunberriek familia giroan euskara praktikatu dezaten. Familia euskaldunak behar dira horretarako eta prest daudenek Udaltxean, Euskara Zerbitzuan, eman dezakete bere izena maiatzaren 13a baino lehen. Hiru hilabeteko plangintza honek uztailetik irailera arte iraungo du, baina ikasle bakoitzaren egonaldia hilabetekoa izango da. Ikasle bakoitzak 12.000 pezeta ordainduko dizkio familiari eta Eusko Jauriaritzak beste 23.000. Ikaslea ez doa soldatapeko langile gisa familia horietara, hala ere etxeko lan aruntetan lagundu beharko du. Langabezia dauden ikasleentzat bekak izango dira. Igaz Hondarribiko familia batzuek ederki lagundu zuten honetan eta ea aurtengo gehiago animatzen diren!

5
PEDRO AGINAGALDE ESKOLAKO haurrak Candanchun ibili zaizkigu eskiatzen eta gainera, ordenagailua erabiliz, marrazkiak, idazlanak, matematikak eta abar egiten dute. Horixe kontatzen digute ondoko bi lan hauetan.

ORDENAGAILUAK

Seigarren mailakoak gara eta ordenagailuak jarri dizkigute eskolan. Ostiraletan eta astearteetan klasea ematen digute. Bi irakasleek ematen digute klasea, batek Bearnx du izena eta besteak Bittori.

Bittorirekin ikasi ditugu DRAWIN eta WRITING. Drawinen bidez marrazkiak egiten ditugu. Gainera "arraioia" daukagu erabiltzeko eta marrazkiak egiteko. Writingen bidez: Idazlanak euskaraz, gizartea, natura, inpresora etabar. ikasten dugu.

Berantxorekin LOGO ikasi dugu. Eta Logoren bidez matematikak eta language ematen ditugu. Matematikan anguloak etabar. ematen ditugu. Languagean ortografia ematen dugu.

Ordenagailuekin politagoa da ikastea, baina askotan programa bera egiten baduzu azkenean aspertu egiten zara. Asko atsegin zaigu, baina batzutan ez digute nahi duguna egiten uzten. Bittorirekin Writing ematen dugunean eskutitz bat idatzi behar dugu ordenadorean eta gero diskette batetan grabatzen dugu edo bestela inprimatzen dugu. Eskutitzaren hitzak margotu egiten ditugu.

Baita ere, ordenagailuetan programa bat sartzen dugu eta matematikak jostaten ikasten dugu.

Oso interesgarria da eta asko atsegin zaigu.

M.* Antonia Olazabal (5. maila)

SOLASAK eta JOLASAK



GURE OPORRAK CANDANCHUN

Martxoak 13an Candanchura abiatu ginen eskola osoa. Oso pozik gindoazen bidetik.

Nafarroako herri batean bazkaltzen gelditu ginen. Herri horrek Liedena zeukan izena eta ez genuen dena ikusi baina txikia eta polita da.

Bazkaldu ondoren, Candanchurantz abiatu ginen, Candanchura heldu ginenean buelta bat ematera joan ginen eta ondoren gelak eman zizkiguten.

Hurrengo egunean pistara joan ginen eta "Ski de fondo" egin genuen eta ekipoa egin genituen. Denak nahiago dugu "Ski alpino".



Baina "Ski de fondo" egin dugu, denak egin ditugu 21 edo 22 kilometro, nik 21 kilometro egin ditut.

Ostegunean eguraldi oso txarra egin zuen, erreleboak egin behar genituen eta batzuk albergera joan ginen euri eta elur asko egiten zuelako. Azken egunean erremonteak erabili genituen, teleskin ibili ginen.

Albergera joan, maleta prestatu eta diplomak eta medallak eman zizkiguten.

Eta bidean, Liedenan gelditu ginen pixka bat eta Hondarribira heldu ginenean txera joan ginen.

Narrea Basterra (5. maila)



Hamar aldaera dituzu bi marrikotian. Bila itzazu.

MARITXU BEGI ZURI

Maritxu Arranbide, Maritxu Begizurirekin San Pedro kaleko bere etxean izan gera. Bizi guzia arrai tartean pasa duen emakume honek ezagutu du aldaketarik arrantzaz munduan azkeneko hirurogeita-mazazpi urteetan. Apurlearen egon gera elkarrekin eta nahiz eta antxoaren kostera aurrera joaki, antxoaren ez!

Hala ere, ez du gaitzen animorik amona bizi honek. Irun aldean arrai saltzen nola ibiltzen zen kontatu digu, baita gaur egun-go eta ihauterietako zenbait kontu.

Hona bere hitzak:

— H: Noiz jaioa zera Maritxu?



Maritxu Begi Zuri 16 urte zituela.

— MARITXU: Ni Hondarribian jaioa, itsaso ertzean olatu tartean beti, beti urean. 1911ko maiatzaren 23an jaio nizen, ta hurrengo egunean bataiatu, Maria Auxiliadora eman ziaten izena. Atta hondarribitarra nuen, ama etorri zen Hondarribira serbitzera, Melchor Sagarazu juezaren etxera, Nafarrolikan, Olaguetikan.

Hondarribian jaio naiz ta gero ta gehiago enamoratuta nere herriataz, bai, gustu!

— H: Ta bizi guzia arrai tartean...

— M: Bai, beti arrai tartean. "Comunion solemne" egitera arrai saltzetik etorri nitzin. Iruindikan Kaleko elizara tranbian Alamedaño, alpagata berriak erosita sankristanira, sankristanian egiten genituen esamink.

— H: Irunera joaten zinezten arrai saltzera?

— M: Gu Irunera joaten ginen, ta hankutsik joaten nitzin hartuta. Biñon gero galezi ziguten hankutsi ibiltzea, municipal batek esan zian: chiquita, no puedes venir descalza, porque habia mucha porqueria en el suelo, fátelo alpagatakin.

Ta kalez kalez ibiltzen ginen ejuka. Jaskiak hartu ta bakotzak bere kaleak bagenituen melexiko nora joan. Ni beti Mendibil gotti joaten nitzin, ta ze arrai nuen ojuka, biñon arrai ezin saldu.

Ta arrai merkea genunean korrika karabine-roaken kuartelera, nola zen jende asko, haiek merkantxian nahi bai zuten. Batek erosten bazuen denak erosten zuten ta jaskia hustutzen zenuen.

— H: Hor izango ttzu kontuak...

— M: Bai, egun batean lorito batek engainatu zittin. Oraindik etxe hura han dago tente, handik pasatzean oroitzen naiz ni lorito haretaz.

"Pescadora, sube al segundo piso!" arrittu, eta ni tapa-tapa gotti. Ta inor ez ateian, ta ni atea jo ta jo. Andrea aterta ta "si yo no le he llamado", "¿quién me ha llamado, pues?", "habrá sido el lorito". Ta loritoak deituta izaki. Balkoian bazuten lorito bat, ta loritok. Behetti joan nitzenean, nik "lorito cochino!". Ta beti handik pasatzean, han zen lorito bigarren bizitzan: "pescadora, ¿a cómo?".

— H: Kalez kale ibiltzen zinezten, eta ferria?

— M: Bai, ferria joaten ginen. Astelehenetan zen beti feria, kanpotik jende asko etortzen zen, ta joaten ginen askotan arraiakin behetti hango jendeakeri saltzera. Biñon ambulante ibiltzen ginen leku guzti guztian. Ederki korrituta naiz garai bateko Irun. Sartzen nitzin Mendibiler ta ateratzen nitzin Avenida de Franciara, eta Parroki atzera, Eliz atzea deitzen genuen. Gero, tranbia hartu ta etxera.

— H: Ta arrai jaskian sartzen zenuten...

— M: Bai, ta jaskia buruan hartuta. Ondu jarria genuen. Bi jaski ematen genituen: batean arrai, ta bestean perlatu bat jarria, zira, olioakin ta egina, ez jariatzeko, ta ura han gelditzen zen. Noizik ta behinka jaxi ta ura kendu. Ta hartu buruan trapuakin bi jaskiak, ta Irunera, ojuka bide guztian.

KARNABALAK

— H: Azkeneko urteetan karnabeletan beti agertzen zera...

— M: Bai, beti jantzi gera, afizio handia izandu dut eta Hondarribian afizio gogorra zen. Naska gaztea nitzela joaten ginen "Fantasio"ra, Irunera.


Eta orain dela hirurogei urte eman ziaten primer premio galtzeta pare bat, Fantasion, apatxer jantzia. Eugenio Lexoren bodako galtzak eta zapatak, Leontxo Ribesen bixera, ta alkandora zuri bat, pañuelo bat lepoan jarria eta primer premio eman ziaten Fantasion.

Ta orain, berriz hazi denez geroztik, melexiko urteetan jantzitzen naiz. Fan den urtean ez nitzin jantzi zertikan operatua nagon ta, biño hala ere ateratzen kanpora, guardasol bat lorez bete, biño bestela urtero aterara gera.

LANA

— H: Ta zuk orain ere lanean segitzen zuzu...

— M: Bai, beti lanean. Nik arraiaren erosten dut, nik ttut nere jefek, eta arraiaren etortzen denean nik egiten diot deituta nagusiarri, hark ematen nua neri prezioa, eta prezioa etortzen balin bada egiten dut hartu, ka-



Maritxu aurtengo ihauterietan.

miona kargatu ta bere destinora biala.

— H: Egunero?

— M: Dagonean bai... Aurtien oso kostera txarra emaki dugu, oso oso txarra, Hondarribia oso triste dago, zertik antxoari kentzen zaio puska haundia diruakin, eta oso gaizki presentatzen da.

— H: Azkeneko urteetan bada arraiak, gero ta gutxiago dago?

— M: Prezio ona egiten duen gauzik ez da ekartzen. Prezio ona du arrai txurak: le gatza, mediana, arrosela... eta ezta, arrasteroak egiten dute horko linpieza. Konparazio batera, larunbatean ta igandean barakuak etxean dagozte, ta arrasteroak egiten nahi duten guztia, ilegalmente, biñon egiten ematen diote sakudida, arraiak ere paliza haundia hartzen baidu, arraiak ere sentimientua badu.

— H: Arrantzale bizimodua oso diferentea izango da zuek gazteak zineztenetikan, aldaketa izugarria.

— M: Izugarria, izugarria. Guk pobrea asko ikusi dugu, zertikan zeru goian ta lurra behean, ta armadoreak bazituzten sos batzuek, biñon parte bakarrek mariñela oso oso pobre. Orain bezela etzen esplotatua orduan. Orduan antxo sasioa, ta antxo sasioa, ta atun sasioa, bestela deus ez. Gero batelakin arrai batzuek bila ta.

Orain ez, orain emaki ttugu urte batzuek oso onak, holbekiogo. Jendea lehen biñon gehiago saiatzen da. Lehen flota dena joaten zen Donostira arrai saltzera, ta Donostiari ematen zion bizia Hondarribiko barakuak. Gero, jarri zuten lege bat, homontz etorri behar zuten, ta hango esportadoreak aski zutela Hondarribia etortzea. Akaso tenporada bat edo beste pasako gendula txarra, biñon jarriko da. Ta horrela hasi zen. Ta herrian geldi dedila ganantzia, ta triunfo.

Hondarribiko puertua oso famosoa da, ta arraiaren oso ondo gobernatua, ta mariñelak onak dire!

I. Etxebeste
Tx. Sagartzazu

TURKOBURUARENA


Turkoburuez baliatzea ez da gaurko kontua. Bidasoako mugak hizketan baleki, historia eta istorio politik kontatuko liguake. Izan ere, bi Estaduren arteko mugak beti izan ohi dira gaizkile eta mendekariaren ba-
besleku.

XIV. mendearen azken aldera omen zen, errege Endrike III.aren denboran. Alonso de Gijón kondea auzietara zuen eta honek ihes egin eta Baionan errefujiatu. Orduan, errege kondearen burua eskatzen zuen.

Garai berean, Zeballosstarrekin auzika eta borrokan zebiltzan Gonzalez-tarra eta Pedro Gonzalez laugarrena atxilotu zuen zenbait heriotza leporatuz. Urkamendira eramatea baino nahiago izan zuen barkamenduzko hitza eman, kondizio batekin: Alonso de Gijón zelakoa bizirik edo hilik arrapatzea. Hara hor, zigortua zigortzaile.

Orduan ere bazekiten okerbidetik zebiltzanekin baliatzen. Beraz, GAL eta kidekoena ez da oraingo kontua. Hemen biltzen dugun gertakari hau Lope García de Salazarrek dakar **Las Bienandanzas e Fortunas** dertizan kronika haietan (XXV. liburuko 178. folioan). Ahaide Nagusien borroke gainera Erdi Aroko gaizkileen berrin aski ematen digu. Halajaina! Nolan zitezkeen aiak ibilera on eta fortunak?

Dena dela, Pedro Gonzalez hura apez-naz zen kasta zuzeneko. Han kontatzen denez, 16 urte bete zituenekoari istiluetan sarturik ibiltzen omen zen, beti zernahitara-ko prest, sesiaua eta ala sesiaua hemen, zenbait heriotza leporatu arte. Baina, Endrike III.ak atxilotzeaz justiziari bihurtuko zen.



batzuren ustez. Eta, Bidasoaz harandik, ifarraldera amain eman zioten erregeren etsail zen Gijón kondearekin buruz-buru jarriaz. Eginkizun hortarako Hondarribia hartu zuen zubi. Egin beharrezkoa egin eta bertara itzuli ahal baleki, bere auzietatik barkaturik geldituko zen, baina han eroriko balitz inork ezingo zezakenez ezer egin. Hori bai da turkoburuaren zoria.

Pedro Gonzalez laugarrena, etxea eta ondasunak Burgos aldean utzirik, sekretuz igaro zuten Bizkai-Gipuzkoetatik Bidasoaz bestaldera. Baina, Donibane-Lohizunen preso hartu zuten eta turkoburutzat joiala jakin zutenean dirua eskatu zuten bere burugatik. Erregek, bere menpeko Mosen

Juan de San Pedro-ri agindu zion lagundu zezan eta lortu zuen presoondegitik ateratzea eta Hondarribiara ekarri. Baina, hemen ere, gaizkile gisa hartu zuten erregerengana jo zuen laguntza eske. Kronikak dioenez: "e pasó a Fontarrauja. El esperando merced del Rey, que le avia escrito que se venjese a el, porque auja puesto en obra lo que le mandara, e venjendose, falleció el Rey de su dolencia, e esta muerte del Rey fue causa de su muerte a perdición..." Hor ba. Gaizki irten zitzaion, erregeren hitza herioak eraman zuen eta Pedro Gonzalez laugarrena urkamendira kondenaturik agertu zen.

Juan San Martín

BIDASOA IBAIA, URBIDE ALA OZTOPO?

Aita Larramendi* Gipuzkoako ibaien idazten duenean (Bidasoa, Bertandegi, Urumea, Oria, Urola, eta Deba) XVIII. gizaldiko pentsamoldez hitz egiten digu, noski.

Horrela du bere obra osoak lekukotasun baten balio aberatsa.

Bidasoaz esaten digu bera dela, muga izatez gainera, emarietsuena eta uholtzatsuna, eta Bera ingurua arte nabagagarria dela, eta igo eta jeitsi ibiltzen direla alak ditzen dieten gabarrak.

Hemen aipatzen du bere malizia zorrotzarekin honako hau: Orain gutxi ibili ziren batzu ibaiabazaltzeko asmotan, nabagari-riago izan zedin, erosogoa alentzat, San Esteban (sic) - gaur Santesteban edo Donetebe, herriraino heltzeko modua eginez.

Honetarako, noski, ibaian aurkitzen diren harri handi batzu apurtu egin behar zirela. Obra honekin, zion Larramendik, askoz ere erosogoa egingo zen Nafarroarekin merkataritzako hairemuna. Al, baina hau Frantziari Espainiako bideak ireki eta erraztea suposatuko luke, batez ere gerra denboran. Zoritzareko gerra! Eta hau kontuan zuela esan zuen Espainiak Nafarroa armaz hartu eta hemen jarri zuen Gajes izeneko Virrey batek: Bidasoa ibaia ireki beharrean harkaitz handiaz itxi egin behar litzatekela, eta ahal izango balitz, mendiek in itxi, sekula santan nabigagarria izan ez zedin.

Hau eginez gero: akabo ibaia, akabo Hondarribia!

Zorionez, ordea, Virrey madarikatu hau

ez zen Jainkoa, eta Larramendik dion beza-la: Bidasoa ibaia Pirineotan jaio, eta Nafarroako herri batzu ur garbiz buztzi-gozatu eta gero jarraitzen du Endarlazatik gipuzkoara sartuz, eta Irun eta Hondarribiako badia ederra bide, Higeroko lurmuturraren aurre-aurrean itsasoratzeko.

Manuel Larramendi, euskaltzale handiak Euskalerria osoa zuen maite; erakutsi zuen ondo aski bere obra idatzia eta bere jokabidearekin; hala ere, Gipuzkoa zuen kuttunena, eta ez zuen Probintziako lekuri kaittasun handiarekin aipatu gabe utzi.

* *Corografía de Guipúzcoa (1754)*, El Nek Buenos Airesen birargitaratua 1950an.

Martín Ugalde

LURRAREN AZTERKETA

Lurraren azterketak daukan garrantzia nekazaritzan inork uste baino handiagoa da, eta baratzalari asko eta askoren asmoa lur onean eta egokian ereitea den arren, gure arteko zenbait nekazari arretarik gutxienez hortanxe jartzen du ziuraski, alegia, lurra ezagutzen eta ontzen hain zuzen.

Nekazaritzan, lurra moldatu egiten du gizonak eta landareak ederrak egiteko behar duena halakoxea jartzen saiatu. Baratzeko lurrak ona behar duela edozeinek daki; baratzeko landareek azkar eta ugari etorri behar bait dute, gainera kosetxa bat kendu orduko, bestea hasten bait da, lurra deskantsurik utzi gabe. Eta jakina, hortarako lurra eman egin behar zaio, gero kendu nahi badiogu.

Baina begira, gizonak lurra hobeaigotu eta emankorragoa bihurtu dezakeen bezala, baita txarragoa eta antzutu ere egin dezake ez badu behar bezala erabiltzen, eta botatzen dizkion osagarriak edo eranskinak egokiak ez badira. Horregatik, lurra ezer bota baino lehen, aztertu egin behar da, hau da, lur hori berez nolakoa den ikusi eta hori jakin ondoren, falta duen hartatik osatu.

Horrela, garrantzi handia dauka ere landareen janariak zein eta nolakoak diren ezagutzeak; landarea azkar etortzea, ona eta garizentzat gogorra izatea, eta asko ematea nahi baldin badugu, lurra behar ditugun hainbat janari klase bakoitzetik jarri beharko ditugu nahitanahiez.

Ondorengo hauetxe ditugu janari mota nagusiak: Nitrogenoa, Fosforoa, Potasioa eta Sufrea, horietaz gainera, nahiz eta kantitate txikiagoan, landareak hartzen dituzte beste mikroelementu janari asko.



Arizu

Bestalde, hemen ere beste gauzetan bezala, lur muestra ongi hartzeak garrantzi handia du; analizatzen den lur puxka hori izango bait da, gainontzerako guztia erakusgarri.

Hara nola egin behar den muestra hartzea:

- 1) Zein puntutan lurra aterako duzun erabakitzen da lehenbizi. Batz bestea areako bi tokitan hartzen da lurra, baratzaren toki guztietan lur berdina ez balitz izango ere, baratz guztia erakusgarria izan beharko du.
- 2) Lurraren azala garbitzen da, belarrak, hosto iharrak eta zaintxoak kenduz, ondoren luze-zabalean metro erdiko zulo bat egiten da, goldetzean mugitu gabeko ondoa jo arte.

Saiets batetik "xerra" bat kentzen zaio lurra eta zaku edo paper baten gainean uzten da. Jarraian gauza bera egiten da beste puntu guztietan.

3) Ateratzen diren luxerra guztiak bildu, pilatu, nahasi ondo, 4-5 kilo baztertu eta hazietan lehortzen utzi.

4) Lehortzen denean, kozkorak desegin eta kilo bat edo gutxiago hartu eta huraxe bidali laborategira.

Berez ez du gehiegirik ajola muestra garai batean edo bestean hartzeak, baina hori bai, goroztu edo ongarritu ondoren ez da egin behar. Beti ere, kosetxa jaso ondoren egitea da onena.

J. Bereau

SAN ISIDRO ANAIARTEA



San Isidoren irudia Guadalupen.



MAIATZAK 45

SAN ISIDRO EGUNeko OSPAKIZUNAK GUADALUPEN

Goizean

- Hamabiak laurden gutxitan: Prozesioa
- Hamabietan: Meza
- Ondoren: Bertsolariak eta Trikitrixak

- Anaiarteko Bazkaria

Arratsaldean

- Seiretan: Errosaioa
Sokamuturra - Aizkolariak -
Harriarsozaleak
Bertsolariak eta Trikitrixak

Martxo

Bai gurean eta bai inguruko kaltetan berdela izan da azken hilabeteen ugarien ekarri den arraina. Hondarrribian miloi t'erdi sartuak dira dagonneko. Horietatik %75 atzerira saldu delarik, Frantziara gehienbat.

Arrantza lan hauetan oso desberdinak izaten dira emaitzak egun batzuetatik bestetara. Jakin dugunez, joan den hilabeteke egun bakar batean 250.000 berdel hatzeman zituzten, 130.000 kilo sasia eta gaintzekoak legazketariak ekarria.

Salmentari dagokionez, ez dira egun guztiak berdina izan eta hasera batetan berdela ongi saltzen bazen ere, gero konjeladoreetan sartu beharra izan da. Hau dela eta salneurri minimoak mantentzea lortu da behintzat. Soluzio ona izan da benetan arrain konjelatze hau; alde batetik, esan dugun bezala kopuru txikitik beharren araberan salduaz, kanpaina haseran erabakitako salneurri minimoari eusten zaio eta bestetik berdel-kaxa gutxiago erabiltzen da.

ANTXOA. Antxoa gutxi orain arte, be-



raz, geroari begira egon beharko. Aste Santu osteko egunetan 6.000 kilo antxoa ekarri zuten eta 500/650 pezetetan saldu kilo. Tamaina txikikoa, 50/60 ale kiloko. Ea eguraldi onarekin batera antxoaz gaiezka ikusten dugun gure Benta-etxea, denontzat

izango bait litzake pozgarri, arrantzaleentzat, noski, beren ogibidea da eta, baita lehorrekoentzat ere, antxoa jateko irrikaz bait gaude.

Andres Olaskoaga

BERTSOTAN

Txomin Garmentia bertsolari idazleak apirilaren 19ko Diario Vasco egunkarian artikulu bat idatzi zuen Hondarrribiko Ostiral Santuari buruz. Ez omen zitzaion gehiegi damutu Hondarribira etorri eta bertako prozesioa ikusi izana. Jendearen ixiltasunak eta errespetoak bihotz zirrara eragin omen zion.

Bestetik, Udaletxea, obrak direla eta, hustua zegoela konturatu zen, kanpoko arkuak bakarrik zituela zutik. Hainbat aldir haren aurrean bertsoetan aritzera etorria izaki, oraingo honetan ere bi bertso hauek eskaini zizkion Hondarrribiari:

Motiborikan asko badet nik maitatzeko Ondarribi, len ere kanta izan dizkiot bertso polit bat edo bi. Gaurkoan ere ortara noa, ez da izango geiegi, nere izkuntzaz zu goratzeko nola zeran ederregei.

Ikusten denez aurki badezu Udaletxe bat berria, bere bitartez zaindu ditezten auzoa eta erria. Eta bertako agintariak au da nere eskaria: aurreruntz ere gorde zatzute orain arteko neurria.

JAIOTZAK

MARTXOA

- 9: IVAN Pikabea Arburu
Gurasoak: Francisco eta M.^a Mercedes
- 18: ARANTZAZU Mendizabal Egia
Gurasoak: Salvador eta M.^a Estibaliz
- 18: ENRIQUE Barrio Iridoi
Gurasoak: Enrique eta Guadalupe
- 20: ALBERTO Legarda Franco
Gurasoak: Luis Vicente eta Amelia
- 25: ESTIBALIZ Zubialde Fernandez
Gurasoak: Julian eta M.^a Esther
- 26: JOSUNE Personat Sampedro
Gurasoak: Juan Carlos eta M.^a Teresa
- 28: INES Telleria Almeida
Gurasoak: Miguel Angel eta Rosa M.^a
- 31: ION Tife Perez
Gurasoak: Juan Luis eta Rosa Antonia
- 31: OIER Tife Perez
Gurasoak: Juan Luis eta Rosa Antonia

APIRILA

- 1: MIREN Arozana Jimenez
Gurasoak: Juan Antonio eta Margarita
- 3: AITOR Izquierdo Pizzio
Gurasoak: Felipe eta M.^a Angeles
- 5: MARGARITA ESTIBALIZ Rodriguez Fernandez
Gurasoak: Miguel M.^a eta M.^a Concepcion
- 16: XABIER Oliveri Gonzalez
Gurasoak: Jesus M.^a eta M.^a Coro

EZKONTZAK

MARTXOA

- 26: Miguel Iñigo Gil Ugarte, Hondarrribikoa eta M.^a Lourdes Mendizabal Manterola, Hondarrribikoa.
- 26: Nicolas Arruabarrena Arrieta, Hondarrribikoa eta Ana Larzabal Amantegi, Hondarrribikoa.

DEMOGRAFIA

- 26: Jesus Uranga Garmentia, Hondarrribikoa eta M.^a Izaskun Muguruza Errazkin, Hondarrribikoa.
- 26: Agustín Arozana Sanz, Hondarrribikoa eta Ana Eloisa Torres Gordo, Hondarrribikoa.
- 26: Aitor Aginagalde Goikotxea, Hondarrribikoa eta M.^a Lourdes De La Varga Arroyo, Irungoa.

APIRILA

- 3: Luis M.^a Etxeberria Irazoki, Hondarrribikoa eta Rufina Rodriguez Moyano, Irungoa.
- 16: Armando Ibañez Alonso, Valladolideko eta Rosa M.^a Briz Ezeiza, Hondarrribikoa.
- 16: Ignacio-Joaquin Tristan Solis, Irungoa eta M.^a Isabel Anzisar Olazabal, Hondarrribikoa.
- 19: Ramon Amantegi Ibargoien, Irungoa eta Miren Elixabete Gezala Oiarbide, Hondarrribikoa.

HERIOTZAK

MARTXOA

- 14: Sebastian Mendizabal Tolosa
- 25: Eleuterio Obeso Laruskain, Bernet Etxepare

APIRILA

- 8: Emiliano Oiarzabal Etxeberria Urbilla kalea
- 11: Patrocino Aiestaran Irigoien San Gabriel egoitza
- 16: Josefa Arandia Gaztañaga Bidasoa kalea
- 22: Maria Pildain Areitio Javier Ugarte

SAN MARKOS EGUNA ETA OPILAK



San Markosen gurutzea Lonjaren ondoan zegoenean.

Aspaldiko denboretan apirilaren 25ean hiru prozesio egiten ziren San Markos egunean:

Lehenengoa, Guadalupeko Ama Birjinaren eta Santa Barbara Basiliketan zehar Jaizkibel gainean ibiliz Almaringo Gurutzaraino (1598. urtean egina) joaten zen, hemendik Andreariagako ermitarantz, Errege bidera eta Mendelotik, kaputxinoen kontentua eta Santa Engraziako ermitatik Hiria itzultzen zen. Udalkide batzuk eta bi apaiz joaten ziren. Profesionaren buruan Gurutzea altxata joaten zen.

Bigarrena, Portuko erriberatik, Santelmoren ermita, eta Guadalupe zehar, S. Felipe eta Santiagotik itzulirik. Bi apaiz joaten ziren, udalkide batzuk eta Gurutzea.

Prozesio biak Parrokiatik abiatzen ziren egunsentian eta bertara itzultzen ziren batean eta bestearen parte hartzen zuten herriarrek, lehenengoa eguerdia baino lehen eta bigarrena goizeko bederatzietarako.

Hirugarrena, Parrokian ematen zen errotiba meza entzun ondoren, Lonja Etxearen aurrean zegoen Gurutze aldera (1604.ean egina) abiatzen zen. Prozesio honetan, gainerako elizgizonek, heritarrek eta udalgizonek hartzen zuten parte.

Hiru prozesioetan letaniak kantatzen ziren, Ebanjelioak eta errespontsoak, ohizko tokietan, eta lehenengo bietan Errosario Santua errezatzen zuten bidean zehar. Egunsentian abiatzen zirenetan, bide luze-ko nekea goxatzeko, freskagarri bat prestatzen zuten Herriko Etxeak, udalgizon eta apaizentzat. Heritarrek ere beren janariak eramaten zituzten ahuldutako indarrak xuxpertzeko. Baina gauzak sakabanaturik eramatea traba baizik ez zenez gero, "opilak" egiteko ohitura sortu zen; horrela opil bakar


aldiz San Markosen prozesioa. 1972tik aurrera opil bedeinkapena Parrokian egiten da goizeko 9etan.

Oroizten naiz, 1940. urtearen inguruan, neskato txikia nintzelarik, nolako ilusio eta ezinegonaz egoten ginen apirilaren 24ean opila ekartzen zuten maidien zain. Egun hartan gai bera entzuten zen haur guzien hizketan: opila eta non jango ote genuen hurrengo egunean.

Hogeitabosteko goizeko 8,30etan, kanpai hots artetan aurretik Gurutze altxatua zeramatelarik, Parrokiatik ateratzen ziren apaizak prozesioan, haur askok lagunduta, opila serbilleta batean bilduta generamala, Lonjako San Markosen Gurutzera joaten ginen eta bertan zain egoten ziren beste haur batzuk ere. Gurutzearen ondoan belar gainean uzten genituen geure opilak eta apaizek, bakoitza puntu kardinal batera begira lau Ebanjelioak kantatzen zituzten bitartean, serbilletako korapiloak askatzen genituen opila agerian utziz. Huraxe izaten zen nere txanda! Tarta plateretik jaso eta azpitik zimikoka jateari ekiten nion. Bedeinkazioa bukatutakoan serbilletak lotzen genituen eta prozesioan Parrokiara itzultzen ginen meza entzutera. Behin etxera ezkerre, arrautza zeukan tarta zati bat ebaki eta maidiari eskaintzen genion. Nere zatia beti-ro izaten zen itsusiena, nonbaitetik jana egoten bait zen. Arratsaldean kanpora joaten ginen opil zati batekin. Gogoan daukat, etxean arrautzak gorde egiten zirela bihar-munekoko bazkarian tomatearekin jateko.

Ohiturari jarraituz nere besotakoak urtero opitarren dizkit opil zatia eta arrautza. Uste dut besotako guziek gauza bere egingo dutela berein maidiekin.

Sorkunde
1988ko apirillean



JASKIA BETE ANTZO

Gaurko bizikerak eskaintzen dizkigun gauza gehientxoek berekin dute neke-lana aintzea eta ahal bezain denbora guzian gauzak egitea. Eta ezin dugu esan hau gauza txarra denik, baina, konturatu gabe, alde batetik denbora eta neke-eza irabazten baditugu ere, bestetik, soso-soso, telebistak, ixerleku guriak eta automobiak ezabatu alferitzen ari gaituzte. Baten batzuek, oker horretaz jabeturik, beren ibilaldi luzeak edo gimnasiaren bitartez lorzen dute bere gorputzaren oreka, ekilibrioa.

Gure haurtzaroko arrai-saltzaileek, berriaz, ez zuten horrelako deus ere egin beharrik izaten: zeramaten bizimoduak berak egiten zituen ibiltzen arinak eta arosak, zintzur ederrekoak eta hizketari abilik. Gaurko soinu eta zaratatik urrun, Portuan, arraiaren bentako kanpaiak jotzen zuenean halako mugimendu bat sortzen zen. San Pedro kaleko erreka guztietatik arrai-saltzai-

leren bat ateratzen zen bere jaski xabala, mantal eta alpagata axulekin, benta egin ondoren nor baino nor lehenagoka, bai bai-zeiketen lehenbiziko arraiak prezio handiago egiten zuela. Buruan edo gerrian jaskia bete arraiekin makina bat pauso eman behar izaten zuten saldu arte.

Eztari ederrekoak ziren, Inon ez bezala egiten zuten arrai saltzeko oihua. Ausartzen naiz esatera itsas ertzeko herrixka guztien baino hobeto oihukatzen zela Hondarrribian. Bai gustagarri zela Euxtaki Xumeta edo Regina Politaneokari entzutea, oso goratik, arrai mota guztiak izendatuz, eta azken hitz luzea eta dardaritsua.

Iruneraino joaten ziren beren arrai saltzera. Batzuetan oinez, besteetan autobusez. Hauek arrai-jaskiak jartzeko leku bere- xi bat zeukaten gaineko aldean eta horren antolaketa txoferek eta kobradoreek egiten zuten. Baina egun batez, zein lehenengo laxterka batean, goian zegoen kobradoreak utzi egin zuen jaskiaren kiderra eta turrumballaka goitik behera txoferraren gain- nera erori zen jaskia bete antxo txiki eta gir- litsu.

Orduan konturatu nintzen ez dela mote- la arraiketarien mingaina. A zer nolako ber- to pareta bota zioten elkarri, batak erdaraz eta besteak bietara. "Urde asto buru haun- dia" izan zen hitzik polilitena. Gainerakoak... zuk asmatu.

Bai, Beren saldu beharrean hizketari erraxak ez ezik galdera eta erantzunetan azkarak ziren. Begira bestela San Pedro kalean gertatutako honi.

Bazihon Mari Emexortxi (azken hitz hau izengoitia zuen) buru gainean arrai jaskiarekin eta sagardotegi baten aurretik igarotzean hantxe ixerita zen arrantzale multzo bat haletako batek, hain xuxen izen goitik "Arrikoskorra" deitua, esan zion Mari Emexortxi:

—Zer dun saltzeko?

Eta Mari Emexortxi:

—Harri koskorak!!!

Lourdes Zubeldia

KIROLAK

SASKIBALOIA HONDARRIBIAN

Bukatzear dagoen denboraldi honetan, sekulan baino partaidetza ugariagoa izan du saskibaloia, txapelketa ofizialen parte hartu duten elkarte federatuetatik gainera, Hondarrribiko ikastetxe guztien artean joka- tu diren txapelketetan 400 neska-mutil bai- no gehiagok parte hartu bait du.

Garrantzitsuen, Hondarrribiko gazteen partaidetza izan arren, hauek lortutako garaipenak ere aipagarriak dira, batez ere, Gipuzkoako Emakumezkoen Gazte Txapelke- tan lortutakoa, bertan, bi partidu besterik ez bait dute galdu, bata Orion eta bestea Donostian eta Lehen Mailako harrobia di- ren taldeei ere errez irabazi diete.

Autonomiarteko Lehen Mailan "Se- nior"ek izan duten arraskata handia izan da, A-2 Seriean bigarren geratu bait dira, Deustuko "ESCLAVAS" taldeak bakarrik irabazi dielarik, "Kadete"ek ere Lurralde Mailako Txapelketaren A-2 Seriean lehen postua lortu dute.

Hau guztia, Saskibaloia Elkarteak, Esko- larteko Txapelketetan egiten duen ahalagin izugarriaren emaitza dela esan dezakegu, lehen aipatu ditugun 400 jokalarik horien en- trenatzale eta epaile gisa lan handia egi- ten bait du; talde hauetako asko janadik nabarmentzen hasiak dira, albidiez Ama Guadalupeko Ikastetxeko mutikoen talde- ak, Zonaldeko Txapelketan lortu duen garaipena, eta Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketaren azken fasean, San Jose


Ikastetxeko nexkek eta emakumezkoen "minibasket"en ikastalakoek izan duten partaidetza benetan aipagarriak bait dira.

Joan den udan (uztaila eta abuztu) Hondartzako pistetan kanpaina bat antola- tu zuen Saskibaloia Elkarteak, eta bertan nahi zuten nexka-mutil guztiek parte hartu ahal izan zuten, aipaturiko kanpainak dato- ren udan ere jarraipena izango duelakoan gaude. Ere berean, Jostaldi Pilotalekuan, Eguberrietako Kanpaina bat eratu zen "benjamin" adineko mutikoenzat eta "mini- basket"eko nekentzent.

Ekitza hauen osagarri gisa eta saski- baloia erortikizunari begira denboraldi honetan Hondarrribian antolatu den ikasta- roan, 18 ikasle izan dira saskibaloieko mo- nitor titulatu eskuratu dutenak.

Aipatu ditugun ekitza guzti hauek, Hondarrribiko Udalak bere Kirol Kontseilu- ren bidez eman duen laguntzari esker gau- zatutako ahal izan ditugu eta Foru Aldundiak ere bere Kiroltako Zuzendaritzaren bidez zenbait bider lagundu digu.

Nieves Alza



ETXE ZAHARRAK BERRIZTATZEKO DIRU LAGUNTZAK

Urtero bezala aurtan ere Udalak 7 milioi jarri ditu etxe zaharrak konpontzeko. Laguntza hauek lortzeko Hiri Zaharren, San Pedro kalean (zenbaki ez-pareetan), Santiago kalea, Madalena edota Mendelun egon behar dute etxeek. Eskabideak maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira egingo diren obren gastuak zehatz agerturik. Balio historiko-kulturala duten etxeek izango dute lehentasuna eta obrak abenduaren 31a baino lehen bukatu beharko dira.

GUADALUPEKO FUERTEA EROSTEKO ASMOA

Apirilaren 14eko Pleno Berezian Udaltzatik 7 milioi t'ardi erabaki zituen Guadalupeko fuertea errekupeartzeko. Salmentaren baldintzak hitz egiteko Alfonsito Oronoz alkatea Madridera joan zen martxoaren 31n. Azken akordioaren arabera Udalak 30 milioi ordaindu beharko dizkio Defentsa Ministeritzari, honela banaturik: 7.500.000 pta. kontratua sinatzerakoan, 11.250.000 pta. 1.989 urtean eta beste horrenbeste 1.990ean. Fuerteak inguruko lurrekin 174.099 m². hartzen ditu eta azken urteotako utzikieriaz aski hondatuta dagoelarik lehenbailehen subastatzeko asmoa zuen Ministeritzak. Udalarri hasiera egin zion eskaintza 36 milioitakoa izan zen.

HARRESILANDA, EUSKARAREN ETXEA

Hirigintzako Batzordeak Harresilandako etxea, Gaztetxe gisa erabili dena, Euskararen Etxea bihurtzeko obraren baldintzak prestatu ditu eta apirilaren bertan joango da Plenora. Etxeak bi planta izango ditu. Obraren aurrekontua 14 milioitakoa da eta lanak bukatzeko epea 5 hilabetekoa izango da. Projektua Pello Errazkin arkitekтуak egin da.



Santa Engraziako zuzarra 250 udaberriren hosto dotorez jantzi bazen ere triste dugu aurtan, gerritik ebakita enbor huts utzi bait dute.



BADUGU LURPERATZAILAIA.

Lehenengo batean enterradore berria hartzeko deialdi bat izan zen eta aurkeztu ziren lagunen artean inork ez zuen lanpostua lortu. Deialdia berriro eginik Pedro Jaurregi gonzalez gaztea izan zen puntuazio gehiena lortu zuena eta beraz Udalak aukeratu zuena. Berrorrek esaten ziguzene, ez du zailtasun handirik lan hori aurrera eramateko, Leandro lehenengo lurperatzailearen semea denez ederki ezagutzen bait du ofizioa txikitandik. Gauden lasai, hortaz, Domingotxoneko azken pasean behar bezain goxo tratatuko gaituztelakoan.

"BIDE SEGURANTZA" KANPAINA.

Udalak antolatutik, "Bide Segurantz" edo "Educación vial" delako kanpaina hasi zen Hondarribiko ikastetxeetan apirilaren 12an. Bi zati ditu kanpainak. Lehenengoan ikastaldi teorikoa izan da apirilaren 22ra arte eta horretan zirkulazio kodigoa irakatsi zaie haurrei diapositibak eta abar erabiliz. Ikastaldi praktikoa 26an hasiko dira, bi astez, eta horretarako zirkuito bat antolatuko da ikastetxe bakoitzeko eta moto elektrikoak erabiliko dira. Bestetik, eguraldiak laguntzen baldin badu, aste horietako larunbat eta igande goizetan Alondegiaren ondoko futbito zelaiari izango da zirkuitoa haurrak librek ibil daitezen. Ikastaldioi O.H.O.-ko ikasleentzat dira eta irakasleak Jose Javier Altuna, Jose Javier Gonzalez eta Nekane Arzena udaltzainak.

TRASTE ZAHARRAK BILTZEKO EGUNAK

Orain arte traste eta altzari zaharren bilketa Udaltzari brigadak egiten zuen hilaren azken ostegunetan. Martxoaren azken egunean hasita, ordea, "Construcciones y Contratas" enpresak egiten du lan hori. Hemendik aurrera bilketa hilaren bigarren eta azken ostegunetan egingo da. Horretarako aurreko asteazken gauean altera beharko dira trasteak. Ostegun horiek jai gertatzen direnetan bezperan bilduko dira.

EUSKO JAURLARITZAK PORTUAREN AZTERKETA ESKATU DU.

Apirilaren 19an Eusko Jaurlaritzak entseñadaren azterketa enkargatu zion CEDEX-i bion arteko akordio bat sinatuz. Ikerketa orokor horretan arrantza portua, hondartzak eta kirol kalak aztertuko dira batean Losadaren proposamena sakonago aztertutik. Akordioak hiru atal ditu. Lehenago ipar-hego dikeari dagokio eta horren erantzuna maiatzaren azkeneko egongo dela espero da. Beste bi ataletan mareak, korronteak, olatuak eta kutsadura aztertuko dira. Ea, bada, arazo larri honi ahalik azkarren behin betiko konponbidea ematen zailon!

UDAL LANPOSTUETARAKO DEIAK.

Udalak urtebeteko kontrataz lau udaltzain berri hartzeko deia egin du. Presentatzen direnek, beharrezko baldintzak betetzeaz gainera (adin egokia, euskara hizketa mailan, e.a.), frogara fisikoa (igeriketa, lasterketa...) eta jakitezkoak (kultura, kodigoko penala, zirkulaziozkoa, Udaltzainaren Udalerria ezagutzea, euskaraz idaztea, e.a.) gaitututa egarotatu. Bestetik, hamabi laguntzaile ere hartuko ditu lau hilabetez datorren udaldiran trafikoa eta aparkamenduak zaindu ditzaten.

Bestetik, Interbentzio eta Bulego Teknikorako bi administratib-laguntzaile sei hilabetez kontratatzeko deia ere egin du Udala. Egin beharrek frogan artean mekanografia, problemak egitea, euskara mintzatua eta idatzia eta abar eskatuko dira, eta Interbentziarako, ordinarailuen berri jakitea ere bai.

Denetan INEM-en izena emanda egotea eta langabeziako subsidiarik ez kobratzea ere hartuko dira gogoan. Apirilaren 27an bukatzen da eskatzeko epea.